

**DEBAKO ITSASADARREKO HEGAZTIEN
JARRAIPENARI BURUZKO AZKEN TXOSTENA.
(2018ko ABENDUA-2019ko AZAROA)**



DEBAKO UDALA



Deban, 2019ko abenduaren 18an

1.SARRERA

Debako paduren inguruko hegaztien jarraipenari dagokion azken txostena duzue honakoa. Urtebetez iraun duen lan hau Debako Udalak agindu zuen, Debako itsasadarreko eta Artzabal/Irazabal inguruetako hegaztien aberastasuna sakon ezagutzeko.

2. EGUTEGIA ETA EKINTZAK.

Pasatutako 12 hilabete hauetan programatutako 30 jardunaldiak burutu dira, eta hiruhileko bakoitzeko txosten bat egin da. Hogeita hamar egun horietan bere garaian onartutako metodologia erabili da, hau da, itsasadarraren inguruan eta Artzabal eta Irazabal alderdietan bi transektu eta hiru behaketa-puntu egitea.

Horrez gain, helburu desberdinak zituzten bi eraztun-kanpaina gauzatu dira:

- a) Migratzaile transahariarrak eraztuntzeko kanpaina (abuztuaren 21etik 30era). Kanpainaren helburu nagusia Ur benarriza, *Acrocephalus paludicola* harrapatzea zen, espezie horren populazioa desagertzeaz baitago Europan.
- b) Debako ikasle eta biztanleei zuzendutako kanpaina, non helburua Debako paduren eta hegaztien ezagutza baizen. Irail bukaera eta urri hasiera bitarteko bost egunetan burutu zen kanpaina hau

3. EMAITZAK.

Eraztun-kanpainetan lortutako emaitzek beren berezko txostena izan zuten. Merezi du azpimarratzea Debako ikasle eta biztanleekin izandako jardunaldien arrakasta dela eta, datozen urteetan errepikatu beharko lirakeela.

Txosten honetan, urtean zehar egindako 30 zentso-jardunaldien emaitzak aztertuko ditugu. Emaitza horiek **1. eranskinean** ageri dira. Bertan, aurkitutako

espezieak eta hiruhileko bakoitzean ikusitako hegaztien kopuru gordinak agertzen dira.

Horren inguruan, hurrengo aspektu hauek nabarmendu behar dira::

A) Urte osoan zehar **100 espezie** desberdin identifikatu dira. Aipatzeko moduko kopurua da hori, azterketa-eremuaren azalera txikia dela kontuan hartuta. Datu honek, 97 espezie hain zuzen ere, berretsi besterik ez du egiten Debako hezeguneen kalitatea; izan ere, espezie bakoitzeko zenbaki handirik ez dagoen arren (aipatu berri dugun azalera txikia dela eta), hezegune batean azal daitezkeen ia espezie guztiak ikusi ditugulako. Berez oso urriak diren, eta aurkitu ez ditugun espezieez gain (Zezen txoria, Ur benarriza, etab.), espezie gutxi batzuk (Amiltxori txikia, ur oilanda txikia...) ez dira hauteman ia ziur oso izutiak direlako edota egindako ahalegina (12 eguneko jardunaldi bat) txikia izan delako.

Hamabi hilabete hauetan, itsas ekaitz handirik eta elurte eta izozterik ez izatea ere erabakigarria izan da espezie gehiago ez agertzeko (pottorroa, hainbat kaio espezie, oilagorrak...).

Zenbakiei dagokienez, nabarmentzekoak dira negu bitartean irauten duten txonta arruntak, *Fringilla coelebs*, txantxangorriak, *Erithacus rubecula* edota Tuntun txoriak, *Prunella modularis*, migrazio garaiko enara arruntak, *Hirundo rustica*, sortzen dituen etzalekuak, eta migrazioan ere Lertxun grisaren taldeak,.

Espezie handi eta urriei dagokienez, Arrano arrantzalea, *Pandion haliaetus*, Zikoina beltza, *Cicconia nigra* eta Lertxun gorria, *Ardea purpurea*, agertu dira. Hegazti hauek, atsedean hartzeko garaian lasaitasunik ez zegoenez, ihes egin behar izan zuten. Hurrengo puntuetan eragozpen hauek nola zuzen daitezkeen aztertuko dugu.

Bitxikeria gisa (eta neurri handi batean klima-aldaketarekin lotuta), Euskal Autonomia Erkidegoan Enara ipurgorriaren, *Cecropis daurica*, umaketaren bigarren aldia izan dela azpimarratu behar da.

B) Lehenengo hiruhilekoaren txostenean idatzi genuenez hiru espezie aloktonoen presentzia nabarmendu da azterketa-eremuan:

-Beltxarga arrunta, *Cygnus olor* (Argazki 1)

-Beltxarga beltza, *Cygnus atrata* (Argazki 2)

-Niloko antzara, *Alopochen aegyptiaca* (Argazki 3)



Foto 1: Cisne común, *Cygnus olor atrata* (



Foto 2: Cisne negro, *Cygnus*



Foto 3: Ganso del Nilo, *Alopochen aegyptiaca*

Hiruhileko txostenetan, hegazti hauen legezko estatusa, beste hegazti batzuekiko portaera eta beren ugalketa zehaztu dira.

Hiru espezie hauetatik, Niloko Antzara, Espainiako espezie exotiko inbaditzaileak arautzen dituen 630/2013 Errege Dekretuan zerrendatua dago (**2. eranskina**). Espezie hauen kontrako estrategia bakarrak zera beharko luke: beren ugalketa ekidin eta pixkanaka pixkanaka desagerrarazi.


Horretarako, lehenengo pausoa bikoteen jarraipena egitea izanzen litzateke, ugaltu ez daitezten. Ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiko Basafauna eta Habitaten Zerbitzuarekin batera lan egin beharko litzateke, hegazti helduak pixkanaka erretiratzeko.

C) Debako padurak bezalako naturgune bat kudeatzeko garaian zaindu beharreko beste aspektu bat zera da: zakurrak aske ibiltzen diren ala ez jakitea. Urtean zehar ikusi ahal izan dugunez, hainbat txakur sartzen dira aintziran eta han zeuden hegaztiak jazartzen zituzten. Hau da espezie basatien ugalketa-porrota sortzen duen faktore garrantzitsuenetakoa, izan ere, txakurrek, berezkoa dute fauna basatia altxatu eta habiak txikitzea. Gehienetan, jabeak ez dira jabetzen zakurrek animalien izan dezaketen eragin negatiboaz. Informazio-kartelak jartzea proposatzen da hemendik, paseoan dabilzanei maskotek eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak jakinarazteko, eta modu honetan txakurrak aske eramatea zergatik debekatzen den uler dezaten. Eremu hau debarrar askorentzat aisialdirako lekua dela jakinik, lan honen zuzendaritzak proposatzen du debekuak gutxienez Artzabalgo aintziren perimetroa hartzea.. (argazki 4).




Argazki 4: Animalia askeei mugatutako eremua

D) Aipatu denez, Artzabalgo aintziren ingurua pasealeku bihurtu da Debako biztanle askorentzat, eta horrek, berez, eragin kaltegarria du basafaunan. Efektu hori arintzeko moduetako bat landaredi naturaleko pantailak diseinatzea da, bi taldeen arteko kontaktu zuzena saihesteko. Artzabalen kasuan, bere garaian landatutako lezkadiak, *Phragmites australis*, aintziren perimetroaren zati handiena ederki okupatzen dute eta oso ondo betetzen dute zeregin hori, baina badira leku pare bat landare-pantaila behar bezala garatu ez dena. Bi leku horietan (5. argazkia) 2 metro altuerako txilar-pareta jartzea proposatzen da, ibiltari eta basafaunaren arteko eragina arinduko dutenak.



Argazki 5: Txilar paretak.

Bi txilar pareta horiek jartzeak habitata hobetzea ekarriko luke, baina ibiltarien ikus-kalitatea okerragotzea, jendea beti espazio irekien bila ibiltzen baita. Bi txilar pareta hauek sor litzateketen kexei aurre egiteko modua 2 metroko altuerako behatoki bat eraikitzea izango litzateke. Behatoki honen kokalekua 6. Argazkian azaltzen da



Argazki 6: Behatokia

E) Jardunaldietan atzemandako beste ahulgune bat ibiltari gutxi batzuek aintziretan bizi diren ahateei jaten ematea izan da. Ekintza horrek, gutxienez, hiru alderdi negatibo ditu:

- Espeziearentzat, espezie basatia izateari uzten baitio
- Azpiegituretan, hegaztiak eurak urmaeletik atera eta dauden eserlekuetan oinezkoen zain egoten baitira, gorotzez betez eta haien erabilera galaraziz.
- Beste espezie basati batzuk erakarriz, kaioak adibidez, espezie horien populazioak hobetzeak dakarren eztabaidarekin.

Aurreko puntuan, D) puntuan hain zuzen ere, proposatutako txilar paretan bidez, aspektu hau konponduko litzateke neurri handi batean, baina hegaztiak elikatzea zergatik debekatzen den azaltzea komenigarria izango litzateke kartel informatibo baten bidez. Txakurren egoera azaltzen den kartel berean izan liteke.

F) Proposatutako neurrien baliozkotasuna eta lekuaren kalitatea egiaztatzeko, metodologia mantenduta azken 12 hilabeteetan egindako zentsoa gutxienez 5 urtean behin errepikatu beharko litzateke.

G) Hegaztiekin zuzenean zerikusirik ez badu ere, ezin dugu txosten hau bukatu azken gomendio bat idatzi gabe: Argentinako Plumeroa, *Cortaderia selloana* landare espeziearen ale bakarra aurkitu da. Espezie hau, Niloko antzara bezalaxe, exotiko eta inbaditzailea izanik, 630/2013 Errege Dekretuan azaltzen da. Erauztea beti zaila den arren, ale gutxi daudenean izaten da borroka hasteko unea, (gure kasuan ale bakarra dugu). Landarea deusestatzeko makineria astuna behar denez, bere horretan errotik ateratzea lortzen ez den bitartean, penatxoak (haziak dauden tokietan) moztea proposatzen da, eta ondoren modu kontrolatuan erre. Seigarren argazkian, landarearen kokalekua zehazten da.



Argazki 6, Argentinako plumeroa, *Cortaderia selloana*

4. LABURPENA.


Debako padurak, Artzabal eta Irarrazabalen inguruan daudenak, neurri txikikoak izanda ere, hegaztien komunitate osoa hartzeko adinako kalitatea badute. Hala erakusten dute zentsatutako bai espezie bai aleen kopuruek.

Lehendik dagoen kalitate naturalari eusteko eta hura hobetzeko, neurri hauek proposatzen dira::

- 1) Informazio-panela jartzea, non animalia solteak eramateko eta hegaztiak elikatzeko debekuaren arazoak azaltzen diren.
- 2) Faunaren gaineko eragina gutxitzeko bi txilar pareta sortzea.
- 3) Bi metroko altuera izango lukeen behatoki bat sortzea, urmaeleko bizitza oztoporik gabe behatzeko.
- 4) Hegazti aloktonoen hiru espezieen jarraipena.
- 5) Zentsoa bost urtean behin errepikatzea.
- 6) Argentinako Plumeroa espeziearen jarraipena eta erauztea (*Cortaderia selloana*)

Deba, 2019ko abenduaren 18a.

Fdo. Francisco Zufiaur



DEBAKO ITSASADARREKO URTEKO HEGAZTI ZENTSOA

Nº Sp.	IZENA	ABENDUA 2018 - OTSAILA 2019	MARTXOA- MAIATZA 2019	EKAINA- ABUZTUA 2019	IRAILA- AZAROA 2019	GUZTIRA
1	Basahatea	197	123	123	158	601
2	Ubarroi handia	97	27	32	33	189
3	Amiltxori arrunta	0	1	1	0	2
4	Lertxuntxo arrunta	6	3	0	8	17
5	Lertxun hauskara	3	8	47	28	86
6	Lertxun horia	0	2	0	0	2
7	Amiamoko beltza	0	1	0	0	1
8	Sai arrea	0	7	2	0	9
9	Arrano arrantzalea	0	1	0	0	1
10	Arrano txikia	0	1	5	0	6
11	Miru gorria	3	1	0	0	4
12	Miru beltza	0	43	19	0	62
13	Zapelatza	21	23	23	10	77
14	Belatz listorjalea	0	2	2	0	4
15	Gabiroia	2	2	3	0	7
16	Belatz gorria	0	1	1	0	2
17	Belatz handia	1	3	0	0	4
18	Uroiloa	5	5	5	7	22
19	Kulixka iluna	2	0	3	0	5
20	Kulixka txikia	41	27	39	52	159
21	Bernagorri arrunta	0	2	0	0	2
22	Kulixka bustanbeltza	0	0	0	1	1
23	Istingorra	22	2	3	0	27
24	Antxeta mokogorria	356	12	96	99	563
25	kaio hankahoria	126	54	35	108	323
26	Kaio hauskara	0	0	0	1	1
27	Pagausoa	13	22	22	10	67
28	Usapala turkiarra	8	29	19	33	89
29	Usapala arrunta	0	1	0	0	1
30	Urubioa	1	2	3	0	6
31	Ontza txuria	0	1	0	0	1
32	Zata grisa	0	1	2	0	3
33	Sorbeltz arrunta	0	59	112	0	171

DEBAKO ITSASADARREKO URTEKO HEGAZTI ZENTSOA

Nº Sp.	Nombre castellano	Nº de aves 16/06/2019	Nº de aves 26/06/2019	Nº de aves 05/07/2019	Nº de aves 15/07/2019	TOTAL
34	Argi oilarra	0	0	1	0	1
35	Martin arrantzalea	15	2	12	26	55
36	Okil berdea	2	4	6	8	20
37	Okil handia	0	7	3	1	11
38	Okil txikia	1	1	0	0	2
39	Hegazabala	1	1	0	0	2
40	Enara arrunta	0	23	50	130	203
41	Enara ipurgorria	0	0	20	0	20
42	Negu txirta	5	0	0	1	6
43	Enara azpizuria	0	16	30	0	46
44	Buztanikara txuria	72	46	38	32	188
45	Buztanikara horia	22	6	7	21	56
46	Tuntun arrunta	27	5	0	6	38
47	Txantxangorria	73	100	26	138	337
48	Urretxindorra	0	0	2	0	2
49	Paparurdina	0	0	1	0	1
50	Buztangorri iluna	0	14	11	2	27
51	Bustangorri argia	0	0	2	0	2
52	Pitxartxar arrunta	4	10	8	6	28
53	Pitxartxar nabarra	0	0	0	1	1
54	Birigarro arrunta	9	62	5	12	88
55	Zozoa	59	140	73	78	350
56	Baso txinboa	0	1	3	0	4
57	Txinbo kaxkabeltza	2	81	83	32	198
58	Sasi txinboa	0	3	8	1	12
59	Txinbo burubeltza	0	0	0	4	4
60	Ihi txoria	16	23	10	6	55
61	Benarriz arrunta	0	0	3	0	3
62	Erreka txindorra	19	44	15	24	102
63	Lezkari arrunta	0	5	5	0	10
64	Lezkari karratxina	0	2	0	0	2
65	Benarriz nabarra	0	0	2	0	2
66	Sasi txoria	0	26	34	0	60
67	Txio horia	0	0	5	4	9

DEBAKO ITSASADARREKO URTEKO HEGAZTI ZENTSOA

68	Txio arrunta	49	27	0	14	90
69	Txio iberiarra	0	10	9	6	25
70	Erregetxo bekainduna	10	3	2	9	24
71	Txepetxa	22	33	36	5	96
72	Euli txori arrunta	0	0	1	0	1
73	Euli txori grisa	0	2	3	0	5
74	Kaxkabeltza	42	48	22	70	182
75	Amilotxa urdina	11	15	15	0	41
76	Kaxkabeltz txikia	1	0	0	0	1
77	Amilotx mottoduna	0	4	0	0	4
78	Pinu kaskabeltza	2	1	1	0	4
79	Buztanluzea	9	2	3	31	45
80	Garrapoa	3	1	0	0	4
81	Gerri txoria	2	1	2	3	8
82	Mika	3	13	24	11	51
83	Eskixue	7	11	0	13	31
84	Belebeltza	30	48	41	36	155
85	Belea	14	1	0	1	16
86	Araba zozo beltza	1	1	0	0	2
87	Txolarre arrunta	153	243	311	409	1116
88	Txonta arrunta	282	47	56	134	519
89	Karnaba	23	85	40	92	240
90	Txorrua arrunta	10	31	6	0	47
91	Tarina	0	14	0	8	22
92	Zirriskila	4	21	3	4	32
93	Paparogorria	0	2	0	0	2
94	Zingira berdantza	8	0	0	2	10
95	Zingira horia	0	0	4	0	4
96	Hesi berdantza	7	12	1	4	24
97	Beltxarga arrunta	3	9	1	7	20
98	Niloko antzarra	10	38	4	0	52
99	Beltzarga beltza	15	17	5	7	44
100	Ahate hibridoa	8	7	0	7	22